



Udal aldizkaria

2018ko maiatza. 8. alea

Lege-gordailua: DL NA 2406-2015

## AURKIBIDEA

TOKIKO MAPA 2

AURREKONTUAK 4

PANELAK 5

SUHILTZAILEAK 6

ARTIKUTZARA BIDEA 6

ZUBIMUXU 7

MOTX-MOTXEAN 8

HURRENGO HITZORDUAK 8

“802.498,46 euroko aurrekontua du  
aurten Udalak” / 4

# ZUBIMUXU ATERPEKO DATU EKONOMIKOEN ANALISIA

2016an 737 ostatu hartze egon ziren eta  
2017an zerbait gehiago, 842 / 7



Goizuetako Udala



## TOKIKO MAPA

**Nafarroako Tokiko Mapa bezala ezagutzen den lege aurreproiektua onartu da.**

Lege honekin Nafarroako administrazioa berregituratuko da. Nafarroan toki entitate asko daudela ikusten da; Goizueta esaterako, hiru mankomunitatetan dago. Mankomunitate bakoitzak lur eremu ezberdina hartzen du eta bakoitzak eskumen bakarra kudeatzen du. Egungo egitura ez da egokiena ikusi da eta baliabideak modu hobea batean erabiltzeko aukera aztertu da.

Tokiko Maparekin Nafarroako administrazioa berregituratzea planteatzen da, mankomunitateetan funtzionatzeko modu egokiena lortuz.

Nafarroako Gobernuak proposatu duen lege honen ardatzak hiru dira:

### 1) Lur eremua (mapa bezala ezagutzen dena)

Nafarroa hamaika zonaldeetan banatzea proposatzen du lege honek. Zonalde hauei eskualde deituko zaie eta gaur egun mankomunitatea deitzen dioguna ordezkatzeko luke. Eskumenak, udalaren aldetik eta Nafarroako Gobernuaren aldetik jasoko lituzke. Goizueta-aren kasuan Larraun-Leitzararen izeneko eskualdean egongo ginateke eta gure eskualdea Araitz, Arano, Areso, Atez, Basaburua, Betelu, Goizueta, Imotz, Larraun, Leitza eta Lekunberrik osatuko lukete (8.889 biztanle).

### 2) Eskumenak

Legeak horrela eskatuta, eskualdeek derrigorrez bost eskumen hauek edukiko lituzkete:

- Herriko ur saneamendua (beheko sarea eta deposituetako instalazioa): Goizueta-aren kasuan udalak ziklo guztia bere gain duenez, salbuespenetan sartuko litzateke. Beraz, ez du zertan eskualdeak gestionatu behar.
- Hondakinak: gaur egun Mendialdea Mankomunitateak hondakinekin egiten duen gestioa izango litzateke, zaborra kudeatzea.
- Gizarte Zerbitzuak: gaur egun Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak egiten duena.



Hamaika eskualdek osatuko lukete Nafarroa.

- Eskualde mailako lurralde-antolaketa: Nafarroako Gobernutik eskualdera pasako litzatekeen eskumena da. Eskumen hau, udal hirigintza plana baino goragoko ordenaziorako tresna izango litzateke.

- Idazkaritza eta Esku Hartzea: 1.500 biztanle baino gutxiagoko herrietako idazkariak eta 3.000 biztanlez azpiko herrietako kontu hartzaileak eskualdekoak izatera pasako dira. Udalak kontratatatu beharrean eskualdeak kontratatuko lituzke eta eskualdeak erabaki dezake idazkari eta kontu hartzaile bakoitzak zerbitzua non emango duen eta zer baldintzetan.

### 3) Finantzaketa

Gaur egun Nafarroan dagoen finantzaketa sistemaren arabera, Nafarroako Gobernutik udaletara oso kopuru txikiko diru transferentziak egiten dira eta dirulaguntza bidez finantzatzen dira herrietako inbertsio gehienak. Modu honetara, udalak, Nafarroako Gobernuak ateratzen dituen dirulaguntza moten arabera proiektuak edo inbertsioak egin behar izaten ditu, eta ez benetan herri bakoitzak dituen beharren edo lehenetsien arabera.

Tokiko Maparekin, hau aldatzea aurreikusten da eta Nafarroako Gobernuak udalei egiten dien ekarpen ekonomikoa handitzea, udal bakoitzak bere ekonomia antolatzeko gaitasuna eduki dezan. Horrela, dirulaguntza linea batzuk desagertu egingo dira.

Lege honetan ez da xehetasunekin zehazten finantzaketa nola izango den, baina esaten dena da, Nafarroako Gobernuak rekaudatzen duenaren gaineko portzentai bat herriei emango zaiela, betiere eta gutxienez, %10 izanik.

Nafarroako Gobernuak herriei finantzaketa ematen badie, ulertu behar da eskualdeek ere beren gaitasun ekonomikoa ongi esplotatua izan behar dutela, hau da, Nafarroako Gobernuak esfortzu bat egingo du dirua herrietara bideratzen baina herriek eta eskualdeek ere beren errekurtsio propioak (tasak, zergak, balorazio ponentziak...) eguneratuak izan beharko dituzte. Hau gertatu ezean, herri horiek diru kantitate gutxiago jasoko dute.

“Udalek beste eskumenen bat eskualdera pasatzea erabakiko balute, eskualdea egin daiteke kargu, adibidez, turismoa, musika eskola, garapen agentzia...”



“Nafarroako Gobernuak udalei zuzenean egiten dien ekarpen ekonomikoa handituko da”

#### Nola aukeratuko lirateke eskualdeko ordezkariak?

Eskualdeko ordezkariak aukeratzeko, udal ordezkarietatik aukeratuko litzateke parte bat, eta beste parte bat, hauteskundeetara aurkezterako garaian alderdi bakoitzak eskualdera doala esaten duenarekin. Hau da, eskualdeko ordezkari batzuk udaletatik zuzenean aukeratuko lirateke eta beste batzuk, eskualdeko boto guztien arabera, alderditik aukeratuko lirateke.

## AURREKONTUAK 2018

802.498,46 euroko aurrekontua da aurtengoa. Hasiera batean, %6a bideratuko da inbertsioetara baina modifikazioak egingo dira, proiektuetako batzuk gauzatzeko.



## BATZARRETAKO AKTAK SAREAN

Goizuetako udalak, udal gardenago baten aldeko pausoa eman du eta herritar guztiei transparentzia osoz gure jardunaren berri emateko [www.goizueta.eus](http://www.goizueta.eus) atarian hilabetero egiten diren udal batzar orokorretako aktak igotzen hasi gara. Bertan irakurri ahal izango da batzarretako informazio guztia, eskaerak eta udal taldearen erabakia eta lantzen diren aparteko gaiak eta hauen erabakiak ere bai.

2018ko udal aurrekontu osoa ere webgunean ikusi daiteke.

Aurten ere, bi sarrera iturri nagusi ditugu: ohikoak batetik, zergak, tasak eta horrelakoak, %37a; eta bestetik, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, %46a.

Gastuetan, ohiko gastuez gain, %6a bideratu da inbertitzeko. Ez da asko, baina modifikazio presupuestarioak egingo dira proiektu batzuk gauzatzeko.

Dagoeneko egin ditugu aurrekontuan aldaketa batzuk, esate baterako, Xalto eskolako parkea eta kanpoaldeko argiteria berritzea (dirulaguntza ere jasoko da); Zubimuxurako pertsona bat kontratatzea...

Artikutzako aparkalekura raino kotxeentzat sarrera egokitzea ere aurtengo proiektu nagusietako bat izango da (diruz lagundua hau ere) eta ondorengoak ere 2018ko aurrekontuan sartu dira: iralekuen hitzarmena aurrera eramateko enpresa bat kontratatzea; Dantzen lokala berritzea; Borda Erretik Errekalekura doan pista berritzea; kitamiedosak jartzea zenbait baserriarako bideetan, autoenplegurako dirulaguntzak ere emanen dira; auzolana ere sustatuko da...

## PANEL INFORMATIBOAK

Panel informatiboak jartzen ari gara herrian.

Herriko kaleak eta batez ere paretak txukun eta garbi mantentzeko asmoz, Udala iragarki, ohar eta kartelak jartzeko panel berriak jartzen ari da. Panel hauek herriko toki estrategikoetan edo jende gehien ibiltzen den lekuetan jarriko dira: Idoieta auzoan, Eskola-Landa arteko bidegurutzean, Ikastola bueltan, Udalletxean, Kale Nagusian.. Lehendik dagoen Txino auzokoa mantendu egingo da egoera onean dagoelako eta gasolindegian ere badago tabloia. Beraz, hemendik aurrera leku hauek izango ditugu herrian kartelak jartzeko.

Orain jarriko diren panel berri hauen kostua 2.915,50€-koa izango da.



Panel informatibo hauen bidez, iragarkiak edozein modu eta tokitan jartzeari irtenbidea eman nahi zaio, helburua izanik, alde batetik, kaleak eta paretak txukun mantenduz, herritarrei oharrak, kartelak, iragarriak... ezartzeko eremu egokiak eskaintzea, eta bestetik, informazioa jaso nahi duen herritar orok nora joan zuzena izatea, informazio gune hauek indartuz.

Aurrerantzean, herritarrei, horretarako prestatu diren euskarri hauek erabiltzea eskatzen zaie kartelak jartzeko, eta berauen erabilera egokia egiteko. Esaterako, kartelak txukun jarritz, besteak errespetatuz eta egunez pasata daudenak, kenduz.



## TURISMO PANELAK

Ibilbide megalitikoak ezagutarazteko asmoarekin, panelak eta seinaleak jarri ziren duela zenbait urte Aitasemegiko ibilbidean eta Alkasoaldekoan. Baina azken urteetan, zaharkituta eta ondatuta zeuden gehienak eta orain, udal langileak berriak jartzen dabilta. Laister, guztiak jarriko egongo dira eta uda bueltan megalitikoan ibilbidea eta historia ezagutzera datozenentzat atseginagoa izango da ibilbideak egitea eta informazioa jasotzea.

Panel hauez gain, aipatu, herrian dauden zerbitzuen eta interegarriak diren leku turistikoan informazioarekin beste bi panel ere jarriko direla; bata, plazan eta bestea, Beko Errotako atsedenean.

## SUHILTZAILEAK



Udaleko kideak eta bolondresak beraien egoitzan.

**Udala herriko suhiltzaile eta ATA taldeetako bolondresekin bildu da elkarlanerako borondatea berresteko asmoz.**

Martxoaren 3an izan zen Udala-ren eta Goizuetako suhiltzaile eta ATA taldeko bolondresen arteko bilera. Batez ere helburu nagusia izan zen elkarlanerako borondatea berrestea, egiten duten lana goraiatzea eta eskerrak ematea.

Azken urteetako elurterik handiena izan zen errege egunekoa. Horren

aurrean Goizuetako suhiltzaile bolondresak egin zuten lana azpimarratu eta eskertu zuen Udalak. Kontutan hartu behar dugu urgentziazko egoerarik eman ez bazen ere eta asteburua izanagatik, boluntario lana egin zutela dituzten gaitasun eta baliabideen arabera.

Azken elurte harek ere eraman gaitu elurteen inguruko protokoloa errebisatzeko beharraz konturatzerara eta horretan jardun gara udala eta suhiltzaile bolondresak.

Bide batez, eskertu Ibon Elizegiri azken urteetan suhiltzaile bolondresen taldean izan duen ardura. Ibonek, arduradun izateko kargua utzi du eta Fernando Goiak hartu du bere lekua, Martin Etxeberria eta Ibai Zugarramurdiren laguntzarekin.

## ARTIKUTZARA BIDEA

**Dirulaguntza bidez, 2018an asfaltatuko da zabortegitik Arriurdinetarako bidea.**



Egokituko den bide zatia, zabortegitik aparkalekura.

Landa Garapen Programak (PDR) Goizuetatik Artikutzarako sARBIDEAREN egokitzapena egiteko dirulaguntza eman digu. Obraren aurrekontua 110.941,10 eurokoa da, proiektuaren idazketa-zuzendaritza 3.477,78 eurokoa eta jasoko dugun dirulaguntza 50.000 euro izango da.

Aldiz, Madalenako zubia-Olatxoko oinezko bidexka egiteko eta Tifanitxo eraikina barrutik berritzeko dirulaguntzak ukatu egin dizkigute. Hala ere, errekurrituz gero, zerbait lortzeko aukerak ikusten dira eta bide hori hartuko du Udalak.

## ZUBIMUXUKO DATUAK

**Udalak 2016 eta 2017 urteetako datuekin ondorengo analisia egin du ikuspegi ekonomikoa ardatz hartuta.**

### Sarrerak

Udaletik ikusten dugu sukaldea egokitu zenetik:

- Talde handientzako eta familientzako aukera erakargarriagoa dela, eta kontsulta zein erreserbetan nabaritzen da.
- Herrian lanean ari direnentzat erosoagoa da bertako egonaldia (irakasle, mendikoak, erizainak...).

Aterpe txukuna da eta ohikoa da erabilzaileak errepikatzea.


### Gastuak

Taulan ageri diren gastuak nahiko fijoak eta egongorak dira eta esan daiteke.

#### Udalaren balorazioa:

Sukaldea jarri zenetik emaitzak asko hobetu dira. Gainera, kontuan hartu behar da lanketarik egin gabe (publizitatea, promozioa...) izan direla sarrera hauek eta bestelako dirusarrerak ere lor daitezkeela gosariak emanaz, dutxengatik kobratuz, ekintzen pake te desberdinak eskainiz...

Momentuz, 4 hilabeterako kontratazio bidez aterako dugu aterpearen kudeaketa, hau da, udalak, pertsona bat kontratatuko du honen gestioa eramateko. Baina udalaren nahia, lizitazio bidez ateratzea da, bideragarria delako eta udaletik at, kudeaketa independentea izango lukeelako. Kontratazioaren inguruko informazio gehiago aurrerago zabalduko da.



#### Egonaldi guztien sarrera

2016: 7.944,54€  
2017: 10.172,00€

#### “BALANTZEA 2017”

Sarrerak: 10.412,00€  
Gastuak: 5.219,36€

| GASTUAK                                     | 2016             | 2017              |
|---------------------------------------------|------------------|-------------------|
| Argi indarra: kontsumoa + inspektzioa       | 1.625,92 €       | 1.329,56 €        |
| Telefonoa + internet                        | 880,33 €         | 752,52 €          |
| Kaldera: urteko rebisioa                    | 255,56 €         | 226,88 €          |
| Pelleta                                     | 1.447,56 €       | 1.730,30 €        |
| Asoziatiok:                                 |                  |                   |
| Anapeh (70€x4)                              | 280,00 €         | 280,00 €          |
| Lagun Artea                                 | (90€x4) 360,00€  | (90€x6) 540,00€   |
| Iragarkiak                                  | 191,46 €         | 54,99 €           |
| Web orria:                                  | 145,00€          | 175,45€           |
| Garbitasuna (materiala)                     | 97,48 €          | 129,66 €          |
| Bestelako gastuak (kafetera, goizutrail...) | 92,00 €          |                   |
| <b>GUZTIRA</b>                              | <b>5.375,31€</b> | <b>5.219,36 €</b> |

# MOTX-MOTXEAN

## AIZPEAREN PRAKTIKALDIA

Aizpea Lujambio Karmelo Labaka ikastetxeko ikaslea, udalean aritu da lantokiko prestakuntzako praktikak egiten. Aizpea goi mailako "Animazio Soziokulturala eta Turistikoa" modulua ikasten ari da eta otsailetik maiatzera bitartean gurekin egon da lanean. Eskerrik asko eman diguzun laguntza guztiagatik eta zorte on Aizpea!



## GOIZUTRAIL

Maiatzaren 19an, larunbatean, izango da aurtengo Goizutrail mendi lasterketa. Bosgarrena izango da aurtengo eta aurten ere, bi ibilbide izango dira aukeran: 10 kilometrokoa eta 25 kilometrokoa.

Udalaren izenean, eskerrak beste urte batez, lanean jardun zareten eta jardungo zareten guztiei. Besteei, gonbidapena, kalera atera eta korrikalariak animatzeko.



## BALKOI LEHIAKETA

Lehiaketaren helburua, herritarren parte hartzeari esker, herriaren itxura hobetzea da, goizuetarrek zein turistek ingurune atsegin eta ederraz goza dezaten.

Ez da inon izena eman behar, ekainaren 16 goizean epaileak herrian zehar ibiliko baitira balkoiak eta leihoak ikusten. Irabazleak, herriko komertzioetan gastatzeko 150€ jasoko ditu.



## BAKE EPAILE BERRIA

Martxoaren 6ko batzarrean, legeak eskaturiko baldintzak betetzen zituela ikusirik, aho batez eta legeak agintzen duen erabateko gehiengoak kunplutuz, Iñaki Etxeberria Aranaz Bake Epaile Titular hautatzea erabaki zen. Hemendik aurrera, astearte eta ostegunetan udalean egongo da zuen zerbitzura.



## HURRENGO HITZORDUAK

**2018-05-19** 9:00. GOIZUTRAIL. Herriko plaza.

**2018-05-19** GIZA ARMARRIA. GURE ESKU DAGO. Iruñea.

**2018-05-29** 19:00. BATZAR OROKORRA. Batzar aretoa.

**2018-06-10** GIZA KATEA. GED.

**2018-06-16** UDAKOLORE BALKOI LEHIAKETA. Goizuetara.

**2018-06-23** SAN JUAN SUA. Plaza.

**2018-06-26** 19:00. BATZAR OROKORRA. Batzar aretoa.

**2018-07-15** KARMEN BEZPERAKO SUA. Herriko plaza.